

OÑATIKO UDALA

20/2021 LEGETIK ERATORRITAKO GIZARTE LANGILE PLAZA JABETZAN BETETZEKO LEHENENGO PROBA "B" ZATIAREN INGURUKO JAKINARAZPENA

Deialdi honetan parte hartzeko eskaera egin dutenei hau jakinarazten zaie:

Hautaketa-prozesu honetako gaitegiko azken puntuan agertzen den bezala, eskabide orriak

ARIKETA EGIN AURRETIK

1. Oposizioaldiko lehenengo proba B zatia (praktikoa) 2024ko apirilaren 22an izango da goizeko 9:00etan, Gipuzkoako Probintziako Artxibo Historikoan (aurreratzean GPAH) (Ibarra zelaia 4, 20569 Oñati).
2. Ateak 8:30ean irekiko dira eta 8:55ean itxi.
3. Izangaiek NANA, pasaporte edo gidabaimena, eta boligrafo beltz edo urdina (errotuladorea ez dena) eraman behar dute ariketara.
4. Izangaiek GPAHko sarrerara joan behar dute, NAN, pasaporte edo gidabaimena eskuan dutela eta telefono mugikorra itzalita (ez isilik, ez hegaldi moduan).

ARIKETA EGIN BITARTEAN

1. Dagokion gelara sartu ondoren, izangaiek ezin izango dira komunera joan.
2. Telefono mugikorrak eta bestelako gailu elektronikoak itzalita eduki behar dira (ez isilik, ez hegaldi moduan), GPAHn sartzen denetik ariketa amaitu eta GPAHtik irten arte.
3. Ezin da eraman erloju adimendurik.

4. Hautaketa prozesutik kanpo geldituko dira ariketak irauten duen bitartean erabiltzeko moduan dagoen sakelako telefonoren bat edo beste edozein gailu elektronikoko daramatzaten izangaiek, Interneterako edo beste gailu batzuetarako konexioa duten gailu elektronikoan.
5. Ezin izango da belarritako tapoirik erabili, eta belarriak agerian eduki behar dira.
6. Gelan erabateko isiltasuna egongo da. Gainerako izangaiekiko jokabide desegoki edo gogaikarria izateak eraikinetik kanporatzea eta hautapen prozesutik baztertzea ekarriko du.
7. Izangaiek mahai azpian utzi beharko dituzte gauza pertsonalak.
8. Ariketak irauten duen bitartean, izangaiek mahai gainean honako hauek soilik eduki behar dituzte: jarraibide orria azterketarekin, gutun-azal handi bat erantzun orria(k) gordetzeko, gutun-azal txiki bat datu pertsonalak jartzeko orritxo gordetzeko, boligrafo urdin edo beltza eta NANA, zeinak une oro ikusteko moduko leku batean egon behar baitu.
9. Zalantzarik izanez gero, izangaiek eskua altxatu eta zaindari baten laguntza eskatu behar dute.
10. Zaindariaren eta epaimahai kalifikatzailearen jarraibideak bete behar dituzte uneoro izangaiek. Hala egin ezean, eraikinetik kanporatu eta hautaketa prozesutik kanpo geratu ahal izango dira.
11. Bertaratze ziurtagiria behar duten izangaiek, azterketa amaitzean eskatu beharko dute.

Oñatin, 2024ko apirilaren 5ean

Epaimahaiko idazkariak